

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 23koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ekonomia itunean sartutako aldaketetara egokitzea

2017ko abenduaren 28an abenduaren 28ko 10/2017 Legea onartu zen. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuena, aldatu zen, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko uztailaren 19ko lehen erabakia aintzat hartuta; izan ere, batzorde horrek aho batez erabaki zuen Ekonomia Ituna aldatzea onartzeko erabili zen prozedura berari helduta.

Aldaketa horren ondorioz aldaketak egin behar izan dira zergen foru arauetan, Ekonomia Itunaren testu berrira moldatu behar izan baitira. Aldaketa horiek Ekonomia Ituna aldatzen duen legearen ondorio berak daukate.

Horrenbestez, bidezko aldaketak egin dira jarraian zehaztuko diren zergak arautzen dituzten foru arauetan eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean: sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga, kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga eta joko jardueren gaineko zerga.

Sozietateen gaineko zerga dela eta, 7 milioi eurotatik 10 milioitara igo da eragiketen bolumenaren atalasea, irizpidetzat hartzen dena zerga ordainarazteko eta egiaztatze eskumena nork daukan zehazteko, zerga egoitza non dagoen kontuan hartuz, eta aplikatu beharreko arautegia finkatzeko. Horrez gainera, Foru Ogasunari ematen zaio eskumena foru arautegia aplikatzeko eta zerga horren inguruko ikuskapenak egiteko zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboek, aurreko urteko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa dutenei, hain zuzen ere, baldin eta EAEn egin badute aurreko ekitaldiko eragiketa guztien ehuneko 75 gutxienez. Nolanahi ere, erregela horrek salbuespena dauka: zerga egoitza lurralde erkidean duten zerga taldeei dagokionez: halako taldeetan dauden subjektu pasiboen aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldiko eragiketa guztiak EAEn egin dituztenek soilik jasan beharko dituzte ikuskapenak eta horiexei soilik aplikatuko zaie zergaren foru arautegia.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokionez, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei buruzko xedapenetan egin diren aldaketan sozietateen gaineko zergan egin diren antzekoak dira.

Gainera, eragiketa bolumenaren arabera tributazioan, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei karga ordainarazteko eta itzulketak egiteko eskumena zer administrazioak daukan ezartzeko modua aldatzen da: orain arte likidazioa ez-egoiliarren izenean aurkezten duen pertsonaren zerga egoitzaren arabera finkatzen izan da eta aurrerantzean ordezkaria ikuskatzeko eskumena daukan administrazioak edukiko du. Beste alde batetik, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia ordainarazteari dagokionez arautzen da lotura puntua saritutako loteria edo apustuetako dezimoa, frakzioa edo kupoia erosten den tokia izango dela.

Dohaintza eta oinordetzen gaineko zergaz denaz bezainbatean, Foru Aldundiaren esku egongo da egoitza atzerrian duten zergadunen eskuraketen gaineko zergaren ordainarazpena (Aldundiak bere arautegia aplikatuko du), baldin eta eskualdatutako ondasunen eta eskubideen guztirako balioaren zatirik handiena Euskadiko ondasunei eta eskubideei badagokie;

halaber, Arabako Foru Aldundiaren esku egongo da egoitza Espainiako lurraldean ez dutenen oinordetzen gaineko zergaren ordainarazpena, baldin eta jaraunsearen egoitza Araban badago, eta atzerriko ondasun higiezinak Arabako egoiliarrei dohaintzen zaizkienean jasaten den kargaren ordainarazpena ere bai. Gainera, aldatu egiten da Foru Ogasunak zer arautegi aplikatu behar duen zehazteko pertsona kausatzailea edo dohaintza hartzailea lurralde erkidean edo euskal lurraldean egon den aldia kontuan hartzen duen erregela; hain zuzen ere, aldatetaren ondorioz pertsona kausatzaileak edo dohaintza hartzaileak zergaren sortzapen egunaren aurreko 5 urteko aldiaren egun gehiago eman baditu lurralde erkidean, bertako arauak aplikatuko dira.

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, eragiketen bolumenaren atalasea sozietateen gaineko zergan bezala eguneratzen da. Zerga honetan aldatetarako ordainarazpen tokia zehazteko eta egiaztatenerako eta ikuskapenerako eskumenari bakarrik eragiten dio. Halaber, ikuskatzeko eskumena dela eta, zerga taldeei dagokienez zer arautegi aplikatu behar den finkatzeko eta egiaztatenerako eskumena nork daukan zehazteko aplikatzen den salbuespenak entitate taldeak ere hartzen ditu zerga honetan.

Beste alde batetik, zerga honen tributazioan itzultzen diren kuotak erregularizatzeko prozedura berria arautzen da kasu jakin batzuetarako: batetik, zergaduna zerga administrazio baten ordainarazpen eskumenaren menpean egon bada ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi aurreko likidazio aldietan eta beste zerga administrazio batean ordainarazpen eskumenaren menpean ondoko likidazio aldietan; bestetik, zergadunak administrazioei (erkideari eta foru administrazioei) zergak ordaintzen dizkien proportzioak asko aldatzen direnean likidazio aldi batzuetatik besteetara. Horrenbestez, zergadunek ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi aurreko likidazio aldiak erregularizatu beharko dituzte administrazio bakoitzari berari dagokiona ordainuz (aitorpena onartzen den ereduaren aurkeztuta), eta horretarako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi ondoko lehen urte osoan egindako jardunaren tributazio ehunekoak aplikatu beharko dituzte, hau da, jardun horren ondoriozko zergen ordainketan administrazioek jaso dituzten ehunekoak. Erregularizazioak ez du inolako ondorio ekonomikorik edukiko zergadunentzat.

Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergan eta joko jardueren gaineko zergan aldatetarako egokiak egin dira bi zerga figura horien lotura puntuei buruz arautzen dena moldatzeko.

Hain zuzen ere, kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergari dagokionez, presentzialak ez diren merkaturatze sistemen bidez artezten diren gordailuei eta lurraldekatu ezin diren beste batzuei aplikatuko zaien lotura puntua zehazten da; joko jardueren gaineko zergan, berariazko lotura puntua ezartzen da jokalarien egoitza non dagoen identifikatzeko eskatzen ez den joko modalitateetarako.

Azkenik, Zergen Foru Arau Orokorren testuan hainbat doikuntza egiten dira pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei eta establezimendu iraunkorrik gabeko entitate ez-egoiliarrei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskumena nork daukan finkatzeko, zerga delitua arautzeko eta hainbat zerga administrazio daudenean ordainarazteko eta ikuskapenak egiteko eskumenak beren artean koordinatzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergei buruzkoak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege jaurbideari buruzkoak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 2. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Foru arau honetan xedatzen dena zerga egoitza Araban daukaten zergadunei aplikatuko zaie.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatzen dena ez zaie aplikatuko inguruabar hauetan dauden zergadunei:

- Haien eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan da aurreko ekitaldian.
- Aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dute, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egin dituzte.

2. Zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan duten zergadunei ere foru arau honetan xedatzen dena aplikatuko zaie honako hauek gertatuz gero:

- Eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea aurreko ekitaldian.
- Aurreko ekitaldian lurralde erkidean egindako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 baino gutxiago izatea.
- Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin izana edo, Araban eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badituzte, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egin izana.

3. Zerga egoitza lurralde erkidean duten zergadunei ere foru arau honetan xedatzen dena aplikatuko zaie honako hiru baldintzak betez gero:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.
- eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egitea.
- Araban egindako eragiketen bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa izatea.”

“5. Foru arau honetan ezartzen den zerga taldeen tributazio araubidea aplikatu ahal izateko bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, entitate nagusiari, aurreko lehen hiru idatz zatietan xedatzen denarekin bat etorritik, foru arau hau aplikatu behar zaio; bestetik, mendeko entitate guztiei aplikatu behar zaie sozietateen gaineko zergari buruzko lurralde historiko bateko araudia.

Hala ere, aurreko 3. idatz zatian aipatzen diren kasuetan, foru arau hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zerga taldeko entitateek, zerga egoitza lurralde erkidean dutenek, egindako eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidean eginak izatea.

Zerga taldea foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezartzen denaren arabera eratuta badago, foru arau honetako tributazio araubidea aplikatuko zaio baldin eta: batetik, aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena eduki duen taldeko entitateari foru arau honetan xedatzen dena aplikatzen bazaio; bestetik, taldeko gainerako entitate guztiei lurralde historiko baten sozietateen gaineko zergari buruzko araudia aplikatzen bazaie, aurreko paragrafoan xedatzen dena kontuan edukita.

Paragrafo honetan xedatzen dena aplikatzeko, lurralde erkidegoko araudiari lotuta dauden entitateak zerga taldetik kanpokotzat joko dira.”

Bi. 3. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Arabako Foru Aldundiak honela ordainaraziko du Zerga:

a) Berak oso-osorik, subjektu pasiboaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada.

b) Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, Araban egindako eragiketa bolumenaren proportzioan.

2. Zerga taldeek Araban egindako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko diote Arabako Foru Aldundiari.

Hori dela eta, Araban egindako eragiketen bolumena kalkulatzeko eragiketa hau egingo da: zerga taldeko sozietate guztiek talde barruko bidezko ezabaketak egin aurretik lurralde horretan egindako eragiketa guztiak batuko dira.”

Hiru. 45. artikuluko 6. idatz zatiko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) Lotutako beste alderdiak egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratzeko eskumena beste zerga administrazio batek badauka, administrazio horri prozedura hasi dela jakinaraziko zaio, behar diren ondorioak sor daitezela, honako kasu honetan izan ezik: Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 112.bis artikuluan xedatzen dena aplikatu behar bada, bertan arautzen den prozedurari ekingo zaio.”

Lau. 132. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“132. artikulua. Zergaren ikuskapena.

1. Arabako Foru Aldundiak kasu hauetan ikuskatuko du zergaren ordainketa:

a) Zergadunaren zerga egoitza Araban dagoenean; salbuespena: zergadunaren eragiketen bolumena aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin badu edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetan egin baditu.

b) Zergadunaren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, ikuskapena kasu hauetan abiaraziko da: zergadunaren eragiketen bolumena aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo Araban eta zerga egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).

c) Zergadunak lurralde erkidean badauka zerga egoitza, aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan eragiketen ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egin baditu eta, gainera, Araban gainerako lurralde historikoetan egindako eragiketa bolumena baino proportzio handiagoa egin badu.

2. Ikuskapen jarduketak Arabako Lurralde Historikoko araudiarekin bat etorritik egin behar dira; nolahi ere, honek ez du eragotziko beste administrazioekin lankidetzan aritzea.

Ikuskapen lanen ondorioz hainbat administrazioari dagokien zor bat sartu edo kopuru bat itzuli behar bada, kobrantza edo itzulketa Arabako Foru Aldundiak egingo du eta gero, beharrezkoa bada, administrazioek konpentsazioak egingo dituzte beren artean. Ikuskapen organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

3. Ikuskapen jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira Arabako Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan daukan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

Arabako Foru Aldundiak ez badauka ikuskatzeko eskumena, eragiketen bolumena kalkulatzean eragina izan dezaketen eragiketa guztiak egiaztatu ahal izango ditu, non egin diren kontuan hartu gabe, ikuskatzeko eskumena daukan zerga administrazioari egiaztapenaren berri emateko ez beste ezertarako.

4. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek zergadunarentzat ere izango dituzte ondorioak likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazio eskudunek behin betikoak adostu ahal izango dituzte.

5. Zerga foru arau honetako VI. tituluko VI. kapituluaren xedatzen denaren arabera ordaintzen duen zerga talde bateko entitate nagusia Arabako Foru Aldundiaren ikuskapen eskumenaren menpean badago aurreko 1. paragrafoan xedatzen denaren arabera, Arabako Foru Aldundiak ikuskatuko du talde horren tributazioa.

Hala ere, aurreko 1. idatz zatiko c) letran aipatzen diren kasuetan, Arabako Foru Aldundiaren ikuskatzeko eskumenaren menpean egoteko ezinbestekoa da zerga taldeko entitateek, zerga egoitza lurralde erkidean dutenek, egindako eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidean eginak izatea.

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezartzen denaren arabera eraturako zerga taldeak ikuskatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka kasu honetan: baldin eta aurreko 1. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritik berak badauka aurreko ekitaldiko eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko entitatea ikuskatzeko eskumena, aurreko paragrafoan xedatzen dena kontuan hartuz.”

2. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

Ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 1. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:

a) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki ez eta Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, foru arau honetako 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

b) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, honako bi in-guruabar biak gertatzen direnean izan ezik:

– Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.

– Aurreko ekitaldian egindako eragiketen ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean eginak izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan eginak izatea.

c) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, baldin eta:

– Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

– Aurreko ekitaldian lurralde erkidean egindako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 baino gutxiago izan bada.

– Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin badira edo, Araban eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badira, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egindako eragiketena bada.

d) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe lurralde erkidean establezimendu iraunkorren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, baldin eta:

– Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

– Aurreko ekitaldian eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egin badira.

– Araban egindako eragiketen bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa bada.

Hala ere, d) letra honetan aipatzen diren kasuetan, foru arau hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zerga talde bateko kide diren entitate zergadunek, establezimendu iraunkorren zerga egoitza lurralde erkidean dutenek, egindako eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidean eginak izatea.”

Bi. 1. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Zergadunak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudiko betekizunak betetzen baditu eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea hautatzen badu, aukerako araubidea aplikatzeko Arabako Lurralde Historikoaren araudia hartuko da kontuan, baldin eta EAEn lortutako errenta Espainian guztira lortutako errentaren zatirik handiena bada eta Araban beste bi lurralde historikoetan baino gehiago lortu bada.

Zergadunak itzulketa jasotzeko eskubidea badauka, Arabako Foru Aldundiak ordainduko du, errentak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan eduki gabe.”

Hiru. 2. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Arabako Foru Aldundiak honako kasu hauetan ordainaraziko du zerga:

a) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoek eta entitateek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten errentak foru arau honetako 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz Arabako Lurralde Historikoan lortutzat jo behar direnean.

b) Errentak egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten pertsona fisikoek edo entitateek lortzen dituztenean establezimendu iraunkorren bitartez:

a') Pertsona fisikoaren edo entitatearen zerga egoitza Araban badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada, AFak ordainaraziko du haren zerga osoa.

b') Pertsona fisikoaren edo entitatearen zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe, Arabako Lurralde Historikoan bakarrik jarduten badu eta aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, AFak ordainaraziko du haren zerga osoa.

c') Zergadunak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan (foru lurraldeak zein lurralde erkideak) jarduten badu eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, AFak Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordainaraziko du zerga.

Lau. 13. artikuluko 4. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Aurreko 2. idatz zatiko f) eta g) letretan, h) letrako a') puntuan eta k) letrako a') eta c') puntuetan aipatzen diren kasuetan eta 3. idatz zatian aipatzen den kasuan, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaintzen dituzten errentetatik honako kopuru hau Arabako lurraldean lortutzat edo sortutzat hartuko da:

a) Entitateak edo establezimendu iraunkorrek zerga Araban soilik ordaintzen badu, ordaintzen dituen errenten guztirako zenbatekoa.

b) Entitateak edo establezimendu iraunkorrek zerga Arabako Zerga Administrazioari eta beste zerga administrazio batzuei ordaintzen badie, Araban egindako eragiketen proportzioari dagokion errenten zatia.

Hala ere, letra honetan aipatzen diren kasuetan, likidazioa ez-egoiliarren ordezkari gisa aurkezten duen pertsona, entitatea edo establezimendu iraunkorra ikuskatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak badauka, Arabako Zerga Administrazioak edukiko du etekin guztiak kargatzeko eta bidezko itzulketak egiteko eskumena. Nolanahi ere, beste administrazioei konpentsazioak eman beharko zaizkie lurralde bakoitzean entitate ordaintzaileak egindako eragiketen proportzioari dagokion errenta zatiagatik.”

Bost. 40. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Pertsona fisiko diren zerga honen zergadunek Europar Batasuneko estatu batean badaukate egoitza (ohiko bizilekua edo egoitza Europar Batasuneko estatu batean dagoela frogatu behar dute), nahi izanez gero pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoan zergadun gisa ordaintzea hauta dezakete; horretarako ezinbestekoa da ondoren aipatuko diren errentek zergaldi horretan ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren karga jasatea eta, gainera, honako inguruabar hauek gertatzea:

a) Ekitaldian Espainian lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinen batura guztira lortutako errenten ehuneko 75 izatea, gutxienez.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako errenta Espainian guztira lortutako errentaren zatirik handiena izatea.

c) Arabako Lurralde Historikoan lortutako errenta beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino gehiago izatea.

Aurreko a) eta b) letretan xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik (lege horrek partzialki aldatzen ditu sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak).

Aurreko c) lettran xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik.”

Sei. Zazpigarren xedapen gehigarriko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Zerga honen kargapean egongo dira, karga berezi baten bitartez, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, hemezortzigarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatiko a) lettran azaltzen diren sariak, zergadunek jasotzen dituztenak establezimendu iraunkorra erabili gabe, xedapen horretan ezarritako baldintzekin eta jarraian ezarritako diren berezitasunekin, baldin eta saritutako loteria edo apustueta dezimoa, frakzioa edo kupoia Araban erosi bada.

2. Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren sariei atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatuko zaizkie foru arau honetako 31. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik. Saritutako loteria edo apustueta dezimoa, frakzioa edo kupoia Araban erosi bada, atxikipena edo konturako sarrera Arabako Foru Aldundiak eskatuko du. Halaber, honako kasu honetan ere atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da: zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikatu ahal bada eta ondorioz saria salbuetsita badago.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren tasa ehuneko 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria karga bereziaren zerga oinarriaren zenbatekoa izango da.”

3. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

Maiatzaren 16ko 11/2015 Foru Araua, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarena, aldatzen da; hona aldaketa:

2. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Foru arau honetan xedatzen dena ohiko betebeharrak pertsonalaren zioz aplikatuko zaie egoitza Espainian duten zergadunei honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskuraketetan, kausatzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

b) Bizitza aseguruaren onuradunek heriotzarako ezarritako kopurua jasotzen dutenean, aseguruaren ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

c) Ondasun higiezinaren eta horren gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasuna Araban egonez gero. Ondasun higiezina atzerrian egonez gero, dohaintza hartzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

Horri dagokionez, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira abenduaren 4ko 4/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan aipatzen diren baloreen doako eskualdaketak (dekretu horrek martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena, aldatzen du).

d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza hartzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

Aurreko a) eta b) letretan azaltzen diren kasuetan, kausatzailearen egoitza atzerrian badago, foru arau honetan xedatzen dena aplikatuko da zergadunaren ohiko egoitza Araban egonez gero.

Aurreko a), b) eta d) letretan ezartzen dena gorabehera, baldin eta kausatzaileak, aseguruak edo dohaintza hartzaileak aurreko bost urteetan, zergaren sortzapen egunetik zenbatuta, egunik gehienak lurralde erkidean eman baditu, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruz lurraldean erkidean indarrean dagoen araudia aplikatuko da. Arau hori ez zaie aplikatuko Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 7.2 artikulua araberako euskal herritartasun politikari eutsi diotenei.

2. Foru arau honetan xedatzen dena ohiko betebeharrak errealaren zioz aplikatuko zaie egoitza atzerrian duten zergadunei honako kasu hauetan:

a) Espainiako lurraldean dauden mota guztietako ondasunen eta eskubideen eskuraketetan, baldin eta, baliorik handieneko ondasunak eta eskubideak EAEn egonez gero, Arabako Lurralde Historikoan dauden, erabili ahal diren edo bete behar diren ondasunen edo eskubideen balioa beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.

b) Bizitza aseguruaren kontratuen ondorioz kopuruak jasotzen direnean, baldin eta kontratua egoitza Arabako lurraldean duen entitate aseguratzaile batekin edo lurralde horretan jarduten duten atzerriko entitate batekin egin bada.

Aurreko bi letretan ezartzen denari dagokionez, EAeko lurraldeko zat jotzen dira:

1. EAEn dauden ondasun higiezinak.

2. EAEn dauden etxebizitzetarako, finkei, ustiatzei eta industria establezimenduetarako modu iraunkorrean lotutako ondasun higigarriak, eta, oro har, EAEn egon ohi direnak, nahiz eta zergaren sortzapenean handik kanpora badaude aldi batez.”

4. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zerga

Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, balio erantsiaren gaineko zergarena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 2 bis artikulua izenburua aldatzen da; orain hauxe da:

“2 bis artikulua. Zergaren ordainarazpena”

Bi. 2.bis artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du honako arau hauek aplikatuz:

1. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada eta beraren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dio zerga, eragiketak non egin dituen kontuan eduki gabe.

2. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta eragiketa guztiak Arabako Lurralde Historikoan egin baditu, Arabako Foru Aldundiari soilik ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe.

3. Subjektu pasiboak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten badu eta aurreko urtean egin dituen eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe (eragiketen bolumena artikuluko honetan ezarritako lotura puntuen arabera zehaztu behar da).

Bi. Eragiketen guztirako bolumena hauxe da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla eta jasotako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun errekgua (egonez gero) alde batera utzita.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko. Jardueran emandako lehenengo urtea ez bada egutegiko urtea, jardueraren hasieratik egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da erreferentziatzat urte osoa kalkulatzeko.”

Hiru. 2 bis artikuluko bederatzigarren idatz zatiko testua 2 ter artikulua izango da izenburu honekin:

“2 ter artikulua. Zerga egoitza”

Lau. 2.bis artikuluari paragrafo bat gehitzen zaio, bederatzigarrena; hona testua:

“Bederatzi. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatzen dena gorabehera, jarraian azalduko diren kasuetan subjektu pasiboek ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi aurreko likidazio aldietan administrazioei aplikatutako zerga proportzioak erregularizatu beharko dituzte honako tributazio ehuneko hauek aplikatuz: ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi ondoko egutegiko lehen urte osoan administrazio horiei dagozkien tributazio ehunekoak. Hona kasuak:

a) Subjektu pasiboa beste zerga administrazio baten ordainarazpen eskumenaren menpean egon da jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietan eta ondoko likidazio aldietan Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenera pasatu da.

b) Subjektu pasiboa Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenaren menpean egon da jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietan eta ondoko likidazio aldietan beste zerga administrazio baten ordainarazpen eskumenera pasatu da.

c) Subjektu pasiboa Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenaren menpean egon da aurreko a) eta b) idatz zatietan aipatzen diren likidazio aldietako batean eta bere jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi direnean Arabako Foru Aldundiari dagokion tributazio ehunekoak aldatu da eta zerga administrazioetako bati dagokion tributazio ehunekoak berrogei puntutik gorako aldakuntza gertatu da aurreko likidazio aldietakoekin alderatuta.

Erregularizazio hori egiteko, subjektu pasiboek foru arau honetako 164. Bat.8 artikuluan aipatzen den aitorpena aurkeztu beharko diete ukitutako administrazio guztiei; aitorpenak ez du edukiko inolako ondorio ekonomikorik administrazio horien aurrean.”

Bost. 164. Bat artikuluari beste zenbaki bat gehitzen zaio, zortzigarrena; hona testua:

“8. Foru arau honetako 2.bis.bederatzi artikuluko aitorpena (jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietako kuota itzuliak erregularizatzeko egin beharrekoa) aurkeztea ohiko eragiketak egiten hasi ondoko egutegiko lehen urte osoko azken aitorpen-likidazioa aurkeztu beharreko epealdi berean.”

Sei. 167. artikuluko 3. eta 4. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Hiru. Honako hauek Arabako Foru Aldundiari bakarrik aurkeztu behar diote autolikidazioa:

1. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada, eragiketak non egin diren kontuan eduki gabe.

2. Eragiketa guztiak Arabako Lurralde Historikoan egin dituzten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe.

3. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, eragiketak non egin diren eta haien zenbatekoa kontuan eduki gabe, jarduera hauek egin badituzte:

a) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustategiek eta arrantza ontzien armadoreek beren soro, ustialeku edo arrantzuetoako produktu naturalak, eraldatu ez direnak, ematea.

b) Garraio zerbitzuak, etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak barne.

c) Garraiogailuen errentamenduak.

4. Batasunaren barruan garraiogailu berriak eskuratzen dituzten norbanakoek edo pertsonak eta entitateak, baldin eta beren eragiketak balio erantsiaren zergaren kargatik erabat salbuetsita badaude edo haren kargapean ez badaude eta garraiogailu berriak behin betiko matrikulatzen badira Arabako Lurralde Historikoan.

5. Aurreko zenbakian xedatzen dena eragotzi gabe, zerga zor guztia edo haren zati bat kentzeko eskubidea ematen ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboek, bai eta enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoek ere, Batasunaren barruan zergapeko ondasunak eskuratzeagatik, beraiek hautatzen badute edo arau honetako 14. artikuluko bigarren idatz zatian ezarritako muga gainditzen badute, eta zerga egoitza Araban badaukate.

6. Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo balio-kidetasun errekarquaren araubidean dauden subjektu pasiboek Batasunaren barruan egindako eskuraketengatik, zerga egoitza Araban edukiz gero.

Lau. Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten duten subjektu pasiboek aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari eta diharduten lurraldeetako zerga administrazioei aurkeztu behar diete aitorpen-likidazioa. Hori dela eta, honako erregelak hauek aplikatuko dira:

1. Subjektu pasibo batek lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta eragiketen zenbatekoagatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar badio zerga, likidazioaren emaitza administrazio eskudunei egotziko zaie, subjektu pasiboak egutegiko urtean lurralde bakoitzean egindako ondasun emate eta zerbitzuengatik (kargapekoengatik zein kenkari-rako eskubidea sortzen dutenengatik) lortutako kontraprestazioen kopuruaren arabera, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita.

2. Egutegiko urte bakoitzean behin-behinean aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio aldietan behin-behinean aplikatu beharreko proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du bere ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, behin-behineko beste proportzio bat aplika daiteke honako kasu hauetan:

a) Bategitea, bereiztea eta aktiboak ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hastea, amaitzea, zabaltzea edo murriztea, baldin eta erregela honetako lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatuak proportzioa nabarmen aldatzen bada.

Aldaketa nabarmentzat joko da edozein lurraldetan aplikatu beharreko proportzioa gutxienez ehuneko 15 puntutan aldatzea.

Beste proportzio bat aplikatzeko, ezinbestekoa da alde aurretik subjektu pasiboak Ekonomia Ituneko III. kapituluko 2. atalean ezarritako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinaraztea, zerga foru administrazioei eta administrazio erkideari ordaindu behar izanez gero. Zerga foru administrazioei soilik ordaindu behar bazaie, subjektu pasiboari dagokionez ikus-kapenerako eskumena duen administrazioari egin behar zaio jakinarazpena.

3. Zergaren egutegiko urte bakoitzeko azken likidazio-aitorpenean subjektu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatu ditu aldi horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio aldietan administrazio bakoitzari aurkeztutako aitortpenak erregularizatuko ditu.

4. Subjektu pasibo horiek aurkezten dituzten aitortpen-likidazioetan nahitaez adierazi behar dira aplikatu beharreko proportzioak eta proportzio horien ondorioz administrazio bakoitzari dagokion kuota."

Zazpi. 167. artikuluko 6. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

"Sei. Zergaren ikuskapena irizpide hauen arabera egingo da:

1. Arabako Lurralde Historikoko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egingo du honako kasu hauetan:

a) Subjektu pasiboak zerga Arabako Foru Aldundiari bakarrik ordaindu behar badio.

b) Subjektu pasiboak zerga lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen badu eta zerga egoitza Araban badauka, lurralde erkidean egindako eragiketak direla eta Estatuko Administrazioarekin lankidetzan aritzea eragotzi gabe. Honek administrazio eskudun guztietan izango ditu ondorioak, are haiei tributazioan dagokien proportzioan ere.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian lurralde erkidean eragiketen ehuneko 75 egin badu gutxienez (zehaztutako lotura puntuen arabera), eskumena Estatuko Administrazioak edukiko du; honek ez du eragotziko Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzatza.

Ikuskapen lanen ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, Arabako Foru Aldundiak kobratu edo itzuliko du. Nolanahi ere, gero administrazioek bidezko konpentsazioak egin ditzakete beren artean. Ikuskapen organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

c) Subjektu pasiboaren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, ekitaldi horretako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo Araban eta zerga egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).

d) Subjektu pasiboak lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen badu zerga, zerga egoitza lurralde erkidean badauka, aurreko ekitaldian egindako eragiketa guztien ehuneko 75 gutxienez EAEn egin baditu, eta EAEn egindako eragiketa guztiak (edo gehienak) Araban egin baditu; nolanahi ere, Arabako Foru Aldundia Estatuko Administrazioarekin lankidetzan ariko da lurralde erkidean egindako eragiketak direla eta. Honek administrazio eskudun guztietan izango ditu ondorioak, are haiei tributazioan dagokien proportzioan ere.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, entitate taldeen araubide berezian dauden entitateak Arabako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak ikuskatuko ditu kasu honetan: aurreko ekitaldian eragiketa guztiak EAEn egin baditu, ezarritako lotura puntuen arabera, eta EAEn egindako eragiketa guztiak (edo gehienak) Araban egin baditu.

2. Ikuskapen jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira Arabako Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan dauzkan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

Arabako Foru Aldundiak ez badauka ikuskatzeko eskumena, eragiketen bolumena kalkulatzeko eragina izan dezaketen eragiketa guztiak egiaztatu ahal izango ditu, non egin diren kontuan hartu gabe, ikuskatzeko eskumena daukan zerga administrazioari egiaztapenaren berri emateko ez beste ezertarako.

3. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek subjektu pasiboarentzat ere izango dituzte ondorioak likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazioek behin betikoak adostu ahal izango dituzte."

5. artikulua. Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga

Uztailaren 15eko 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergarena, aldatzen da, 3. artikulua, hain zuzen ere, eta honela geratzen da:

"3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du kasu honetan: entitatearen egoitza nagusia, sukurtsalak edo bulegoak, non hirugarrenen funtsak gordetzen diren, Arabako Lurralde Historikoan daudenean.

Hala ere, mantentze lanak bertaratu gabe egiten diren merkaturatze sistemetako funtsen gaineko kargak eta lurraldeka sailkatu ezin diren funtsen gainekoak Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu lurraldearen araberrako partaidetzaren arabera dagokion proportzioa aplikatuz.

2. Zergaren konturako ordainketak Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu aurreko paragrafoan azaltzen den irizpidea aplikatuz."

6. artikulua. Joko jardueren gaineko zerga

Uztailaren 9ko 23/2014 Foru Araua, joko jardueren gaineko Zergarena, aldatzen da, 3. artikulua, hain zuzen ere, eta honela geratzen da:

“3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Zergadunek, zerga egoitza nonahi dutela ere, Arabako Foru Aldundiari ordainduko diote zerga Arabako Lurralde Historikoan ekitaldian egin dituzten eragiketen zenbatekoaren proportzioan.

Ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa zehazteko kontuan hartuko da egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten jokalariek modalitate bakoitzean jokatu dituzten diru kopuruen pisu erlatiboa. Proportzio honetan lurralde espainiarrean bizi ez diren jokalariei dagozkien kuotetan ere aplikatuko da, eta bi hamartarrekin biribildutako ehunekoetan adieraziko da.

Jokalariaren egoitza identifikatzeko eskatzen ez den joko modalitateetan likidatzen diren kuotak Arabako Foru Aldundiari bakarrik esleituko zaizkio zergadunaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan egonez gero; nolahi ere, baliteke ondoren administrazioen artean konpentsazioak egin behar izatea.

Aurreko paragrafoetan xedatzen dena gorabehera, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuetan eta zaldi lasterketetako Estatuaren elkarrekiko apustuetan jokalariaren egoitza zehazten ez denean, Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga apustua Arabako Lurralde Historikoan dagoen salmenta puntu batean eginez gero.

7. artikulua. Arabako Zergen Foru Arau Orokorra

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako zergenean, hainbat aldaketa egiten dira:

Bat. III. tituluko II. kapituluan beste atal bat gehitzen da, zortzigarrena; hona:

“8. ATALA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA.

112.bis artikulua. Ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenen koordinazioa

Bat. Ikuskatzeko eskumena hainbat administrazioek badute, honako kasu hauetan eskumeneren erabilera koordinatu beharko dute Ekonomia Itunean xedatzen denarekin bat etorritik:

a) Lotutako pertsona edo entitateen artean egindako eragiketak erregularizatu behar direnean.

b) Eragiketei zergadunak aitortzean ezarritako kalifikazioa aldatu eta horren ondorioz jasanzarazpen mekanismoa duten zeharkako zergen kuotak (jasandakoak edo jasanarazitakoak) aldatzen direnean.

Bi. Aurreko idatz zatian aipatzen diren kasuetan, zerga administrazioak administrazioak ukitutako gainerako administrazioei jakinarazi beharko dizkie bere ustez egokia den erregularizazioaren zuzenbide oinarriak eta egitateak zergadunari ebazpen proposamena eman edo bidezko ikuskapen akta sinatu aurretik.

Bi hilabete pasatu baino lehen ukitutako gainerako administrazioek ez badute iruzkinik egiten ebazpen proposamenaz, onartutzat joko da eta administrazio guztiak lotuta geratuko dira zergadunen aurrean: proposamenerako irizpideak aplikatu beharko dizkiete.

Iruzkinik eginez gero, Ekonomia Ituneko 47.ter. Hiru ezartzen den prozedura aplikatuko da zerga ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenak lurralde erkideko administrazioaren eta foru administrazioetako baten artean koordinatzeko; behar den kasuetan artikuluko bereko laugarren idatz zatian arautzen diren ondorioak gertatuko dira.”

Bi. 248. artikuluko 1. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio, hirugarrena; hona testua:

“Idatz zati honetan aipatzen diren likidazioak egiteko eskumena Arabako Foru Aldundiak edukiko du kasu honetan: zergapekoa ikuskatzeko eskumena berak daukanean Ekonomia Itunak ezartzen duenaren arabera. Horrelakoetan, AFak administrazio eskudun guztien aurrean erabiliko du eskumen hori, hau da, haiei dagozkien tributazio proportzio guztiak hartuta, eta berak kobratuko ditu likidazio guztiak; nolana ere, gero bidezko konpentsazioak egin ahal izango dira administrazioen artean.”

Hiru. Laugarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Pertsona fisiko eta juridikoek, bai eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren nortasunik gabeko entitateek ere, identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga ondorioak sortzen dituztenerako.

Zerga administrazioak emango du identifikazio fiskaleko zenbakia, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek Arabako Foru Aldundiari eskatu behar diote identifikazio fiskaleko zenbakia zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukiz gero.

Egoitza Araban ez duten entitateek establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute eta Arabako Lurralde Historikoan zergen arloko egintzak edo zerga ondorioak sortuko dituzten egintzak egiteko asmoa badute, Arabako Foru Aldundiari eskatu behar diote identifikazio fiskaleko zenbakia; salbuespena: beste zerga administrazio batek emandako identifikazio fiskaleko zenbakia dutenek ez dute zertan eskatu.

Arautegi batean arautuko da identifikazio fiskaleko zenbakia nola eman eta kenduko den, nola eratu den eta nola erabili behar den zergen arloko harremanetan eta zerga ondorioak sortzen dituzten harremanetan. Halaber, arautegi batean ezar daitezke kreditu entitateek identifikazio fiskaleko zenbakiaren informazioaren inguruan bete beharrekoak.

Identifikazio fiskaleko zenbakia kentzeko eskumena Arabako Foru Aldundi edukiko du zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan egonez gero; salbuespena: ikerketa eta egiaztatze lanak egiteko eskumena beste administrazio batek badauka, horrexek edukiko du zenbakia kentzeko eskumena ere.

Egoiliar ez diren establezimendu iraunkorrik gabeko entitateen kasuan, zenbakia eman duen administrazioak edukiko du kentzeko eskumena.

Lau. Zazpigarren xedapen gehigarriari beste idatz zati bat gehitzen zaio, bosgarrena; hona testua:

“5. Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren kopuruak ordainarazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak edukiko du kasu honetan: zergapekoa ikuskatzeko eskumena berak daukanean Ekonomia Itunak ezartzen duenaren arabera. Horrelakoetan, AFak administrazio eskudun guztien aurrean erabiliko du eskumen hori, hau da, haiei dagozkien tributazio proportzio guztiak hartuta, eta berak kobratuko ditu kopuru guztiak; nolana ere, gero bidezko konpentsazioak egin ahal izango dira administrazioen artean.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarri da indarrean, eta 2017ko abenduaren 30etik aurrera gertatzen diren sortzapenetan edo hasten diren zergaldietan (kasuan kasukoa zergaren arabera) sortuko ditu ondorioak. Salbuespena: balio erantsiaren gaineko zergaren aldaketek egun horretatik aurrera hasten diren likidazio aldietan sortuko dituzte ondorioak.

Honako hauek egun horretatik aurrera hasten diren likidazio aldietan edo zergaldietan bakarrik aplikatuko dira:

– Jarduera egiten hasi aurreko likidazio aldietan sortzen diren balio erantsiaren gaineko zergaren kuotetatik itzultzen direnak erregularizatzeko araubidea.

– Eskumenak zerga administrazioen artean koordinatzeko prozedura, Ekonomia Ituneko 47.ter artikuluan aipatzen diren eragiketak erregularizatu behar direnean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Gasteiz, 2018ko urriaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ